



BARRUETA ARTE ELKARTEA

ELKARTEA
Barrueta Arte Elkarte

JARDUNA

Arte plastikoen ezagutza eta garapena zabaltea eta sustatzea. Oro har, artearekiko kezka edo zaletasuna duten pertsonen edo kolektiboen arteko harremanak indartzea eta erraztea

BAZKIDEAK

100 inguru
(pintore, artista eta artezaleak)

HARREMANETARAKO

Kultur Etxea

GEURIEN ZER? Herriko elkarteak zertan diren

BARRUETA arte elkarte

Barrueta Arte Elkarte urteetan Peña Barrueta izenaz ezagututako elkarte bera da, bermeotar margolaria zen Benito Barrueta Asteinzaren omenez sortutakoa 1951. urtean.

Halako talde bat sortzen denean, beti planteatzen dira goi mailako asmoak eta guk geuk ere baditugu horrelako helburuak, esaterako:

- Arte plastikoen ezagutza eta garapena zabaltea eta sustatzea.
- Oro har, artearekiko kezka edo zaletasuna duten pertsonen edo kolektiboen arteko harremanak indartzea eta erraztea.
- Bertako eta kanpoko kultur taldeekin eta Administrazioarekin elkarlanean aritzea, Bermeoko arte eta kultur ondarea handitzen laguntzeko... eta beste hainbat.

Zer egiten dugu? Zertara dedikatzen gara?

Urte askotan egon gara -edo behintzat hargatik ezagutu gaituzte- urteroko jaietako erakusketa antolatzen. Izan ere, 1950. urtetik daramagu etengabea eta aurton 58garrena izan da. Sasoi batean aire zabaleko pintura lehiaketak ere egiten ziren jaietan.

Gaur egun, eta zuzendaritza berria dagoenetik (ora in dela pare bat urte) ekintza gehiago eta ezberdinak antolatzen ditugu.

Azpitarragarriena pintura tailerrak dira. Hogei partaideentzako pentsatuta daude eta beti betetzen dira: nagusiak (astearte eta ostegunetan) eta umeak (astelehena eta asteazkenetan). Aurtengo udarako nobedade modura umeen tailerrak ere egon dira eta, oro har, sekulako arrakasta izaten dute.

Tailer guzti hauen artelanekin erakusketa bat egiten dugu Kasinoko aretoan ikasturtea amaitu eta gero. Era berean, museoetara joateko irteerak prestatzen ditugu, bai Arte Ederretako museora, bai Guggenheimera.

Erakusketa indibidualak edo kolektiboak prestatzen ditugu Andra Mari Jaietan eta Ciudad de Frias-en nazioarteko erakusketa ibiltaria, besteak beste.

Iaz, maiatzean, Barrueta ren omenezko erakusketa antolatu genuen; kalitate eta garrantzi maila handikoa, adituaren iritziz. Aurten, aldiz, gure elkartekidea J.L.Chamorro zenaren omenezkoa egin dugu uztailen.

Hirurogei urte pasa arren, asko dago oraindik egiteko gure esku-hartzearen eremutik (kultur programaziorako ekarpenak, bertako ikastetxeekin elkarlana edota aholkularitza...). Horregatik gure taldearen atea beti izango dituzue zabalik Kultur Etxeko gure lokalean.

Ongi etorriak izan zaitezte.

SEGURTASUN NEURRIAK

Txeke izenduna egin, ahal bada.

Kopurua LETRAZ idatzi, ZENBAT EURO dioen lerroan hasita. Gero, marra bat egin, hutsunea balio gabe uzteko.



Babestu zenbakiak # marka eginez diru kopuruaren alde bietan.

Txekea eskuz idaztean, KONTUZ ibili: Ikusezin bihur daiteke tinta, eta idatzitakoa desagertu.

Zeharkako marra bi egin eta barruan idatzi: KONTUAN SARTU. Horrela, inork ezin izango du eskudirutan kobratu txekea.

Txekekerik galduz gero, berehala eman galeraren berri dagokion banku edo kutzari.

Txekek betetzeko idazkera eredu batua

HILEN IZENAK

- Urtarrila
- Otsaila
- Martxoa
- Apirila
- Maiatza
- Ekaina
- Uztaila
- Abuztua
- Iraila
- Urria
- Azaroa
- Abendua

ZENBAKIEN IDAZKERA

0	Zero	15	Hamabost	90	Laurogeita hamar
1	Bat	16	Hamasei	100	Ehun
2	Bi	17	Hamazazpi	200	Berrehun
3	Hiru	18	Hamazortzi	300	Hirurehun
4	Lau	19	Hemeretzi	400	Laurehun
5	Bost	20	Hoge	500	Bostehun
6	Sei	21	Hogeita bat	600	Seiehun
7	Zazpi	22	Hogeita bi	700	Zazpiehun
8	Zortzi	23	Hogeita hiru	800	Zortziehun
9	Bederatzi	30	Hogeita hamar	900	Bederatziehun
10	Hamar	40	Berrogei	1.000	Mila
11	Hamaika	50	Berrogeita hamar	10.000	Hamar mila
12	Hamabi	60	Hirurogei	1.000.000	Miloi bat
13	Hamahiru	70	Hirurogeita hamar	10.000.000	Hamar milioi
14	Hamalau	80	Laurogei		

DIRU KOPURUAK IDAZTEKO ADIBIDEAK

27 €	Hogeita zazpi euro
27,5 €	Hogeita zazpi euro eta hogeita bost zentimo
312 €	Hirurehun eta hamabi euro
312,46 €	Hirurehun eta hamabi euro eta berrogeita sei zentimo
4.911 €	Lau mila bederatziehun eta hamaika euro
4.911,34 €	Lau mila bederatziehun eta hamaika euro eta hogeita hamalau zentimo
3.500.000 €	Hiru milioi eta bostehun mila euro
3.582.000 €	Hiru milioi bostehun eta laurogeita bi mila euro
3.582.670 €	Hiru milioi, bostehun eta laurogeita bi mila, seiehun eta hirurogeita hamar euro

LABURDURAK

K.k.	Kontu korrantea
Zk.	Zenbakia
K.k.zk.	Kontu korrante zenbakia



TELEFONAZ HITZ EGITEKO GIDA

HASIERAKO AGURRAK: AMALUR, bai, esan? | AMALUR, egun on, (arratsalde on).

DEIA BESTE NORBAITI PASATZEKO: Itxaron, mesedez, berehala jarriko zaitut Arantzarekin. | Itxaron apur batean. | Noren partez, mesedez?

NORBAIT EZ DAGOELA ESATEKO: Orain ez dago. Mezuren bat utzi nahi diozu? | Kanpoan da, mezuren bat-edo utzi nahi diozu?

ELKARRIZKETA AMAITZEKO: Eskerrik asko deitzeagatik. | Hurrengora arte.

3. zenbakia | 2009ko udazkena



Bermeon tira eta tira euskararen lata zabaltzen

Ikasturte berria hasi da eta, udazkenarekin batera, udaberrian eta udan landutako konpromisoen uztza jasotzen hasteko edo jarraitzeko unean gaude.

Maiatza bukaeran **Geurien be bai** hitzarmena sinatu zuten berriro ere Bermeoko hainbat elkarte, enpresak, txokak eta merkataritza-estabazimenduk. 68 eragilek, hain zuzen ere.

Lana aurretik egin bazuten ere, **hitzarmenaren sinatzaileak Arra-in Azokako ekitaldian elkartu ziren.** Jendez betetako aretoan eta Create antzerki taldeak egindako **ikuskitzaren** bitartez, hartutako konpromisoak **eszenaratu egin ginituen.**

Bermeoko kirol taldeek ekainean ez zituzten oporrak hartu. **Bermeoko kirol-esparruan hizkuntzen erabilerearen inguruko diagnostikoa** egin eta aurrera begira euskararen erabilera areagotzeko plangintza osatu dute. Gogoeta horren lehenengo fruituak laster ikusteko aukera izango dugu.



Prest, adi, aurrera!

Nekea, aditasun falta, distrakzioa, inkomunikazioa... kirolean garesti ordaintzen diren hutsegiteak...

Trankil! Arazo hauek guztiek konponbidea daukate. Bat batean egarria aseko dizun edari zirraragarri honen burbuilek zure indarra bikoiztu, zure kontzentrazioa zorroztu eta zure taldea fusionatu egingo dute. Eratzunetik tiratzeko prest al zaude?

1. Zer iruditu zaizu kirol-munduan euskaren egoeraren inguruko diagnostikoa egiteko prozesua?
2. Zein da euskararen egoera Bermeoko kirol-munduan, zure ustez?
3. Zer egin daiteke euskararen egoera hobetzeko?



»»» danok irabazle!


2009ko erronka garrantzitsuenetako bat izan da Bermeoko kirol-arloko diagnostikoa eta diseinua egitea eta horretan aritu gara azken hilabeteetan.

Herriko hainbat kirol-talderen eta Kirol Patronatuaren laguntzarekin, egoera zein den hurbil-hurbiletik ezagutu dugu.


DATU ESANGURATSUAK

- Gaur, 21 dira kirol patronatua ikastaroak edo saioak eskaintzen dituzten monitoreak. Erdia baino gehiago (% 60) euskaraz ondo moldatzen da.
- Kiroldegian eskaintzen diren ikastaroetako orduetatik, gehiengoa euskaraz ematen da (% 43).
- Kiroldegiko erabiltzaileen gehiengoa euskaraz ulertu (% 96k) eta euskaraz hitz egiteko (% 88) gai da.
- Zenbait kirol-taldetan monitoreak ez dira euskaldunak; horrek entrenamenduetako hizkuntza baldintzatu egiten du.

HIZKUNTZEN ERABILERA ORDUEN ARABERA



ERABILTZAILEEK IKASTAROETAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA



AURRERA BEGIRAKO HELBURUETAKO BATZUK

- **Sentsibilizazio-kanpainak** martxan jartzea.
- Euskaraz aritzeko zailtasunak dituzten **monitoreei laguntzak eta formazioa eskaintzea**.
- Herriko kirolariek inereferenteen **mahaia osatzea**.
- **Kirol-federazioetan** eragitea euskara gehiago erabiltzeko.

EGILEA:
ELHUYAR AHOLKULARITZA
GESTION 2-17 ALDIZKARIAN ARGITARAU
2009KO APirilAREN 17AN

EUSKARA ez dago krisian



MUNDU-MAILAKO krisialdi honek ondorio kaltegarri batzuk ekarri dizkigu gurera, egunero ikusten ari garenak: enpresen lan-bolumena edota bezeroen eskariak gutxiagotzea, Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (gaztelaniazko EREak) bideratzea eta onartzea, langileak kaleratzea eta langabezia areagotzea...

Krisia, batez ere, ekonomikoa eta finantzarioa da, eta horren aurrean, enpresa asko ahalegintzen dira behar-beharrezkoak ez diren gastuak murrizten, ezinbestekoak ez diren lanak kentzen edo bertan behera uzten. Baina

aldi berean, krisi-garaiko mehatxu horiek beste aukera batzuk pizten dituzte, eta askorentzat momentu egokia da ustez geldialdiko izango den momentua beste lan batzuetarako aprobetxatzeko. Horrela, enpresa askok krisi-uneetan formazioan eta berrikuntzan inbertitzen dute. Horietakoak dira, hain zuzen ere, krisialdi-garaian ere euskara-planei eusten dieten edo ekiten dieten enpresak.

Izan ere, egoera ekonomikoa gora-behera, euskara ez dago krisian, ezta euskara bultzatzeko arrazoiak. Zergatik ekin lan-munduan eta enpresetan euskara normalizatzeari? Arrazoi asko daude, eta horietako batzuk gogorarazi nahiko genituzke:

Etorkizuna euskaraz dator: gero eta jende gehiago da euskaraz dakiena, euskara ikasten ari dena, euskaraz bizitzeko gai dena eta euskaraz bizi nahi duena. Horiej guztiei euskarazko produktuak eta zerbitzuak bermatu beharko zaizkie etorkizunean. Euskarari esker, enpresek hurbiltasuna adieraziko diete bezero edo bezerogai euskaldunei.

Euskara bere egiten duen enpresak balio erantsia eta bereizgarria izango du lehiakideekiko. Euskara kalitatezko plusa edo gehigarria izango da.

Euskarak langileen barne-kohesioa handitzeko eta sendotzeko balio du. Langileek euskaraz lan egiteko aukera baldin badute, langileen arteko koehisioa areagotu egingo da, eta langileak are identifikatuago sentituko dira enpresarekin. Horrela, langileen gogobetetzea eta motibazioa handitu egingo dira.

Enpresa guztiek daukate gizarte-erantzukizuna, inguruko gizarteari begira bete beharrekoa, gizartearen zati edo osagai direlako. Non dauden errotuta, bertako gizartearen ezaugarriekin bat egin behar dute, eta euskara ezinbesteko osagaienez leku askotan, euskararekin bat eginez gero, enpresek adieraziko dute ingurua -gizarte- kontuan hartzen ari direla eta bat egiten duela euskara berreskuratzeko ahaleginarekin.

Askorentzat, enpresan euskara normalizatzeko bideari ez ekiteko arrazoietakoa bat batez ere ekonomikoa izaten da, hau da, gastuak eragiten dituela, eta batzuek are gehiago nabarmentzen dute hori krisialdian. Baina euskarari ekiteko babesa eta laguntza ematen dute instituzio askok (besteak beste, Eusko Jaur-laritzak, foru-aldundiek, mankomunitate eta udalek...) eta enpresek euskararen egiten duten inbertsioaren ehuneko handi bat (kasu batzuetan, % 70) berreskuratzeko azkenean.

Krisi ekonomiko-finantzarioaren gainetik, enpresa askok etorkizunera begirako apustu estrategikoa egin dute euskara normalizatzeko eta euskararen gestioaz jabetzeko.. Orain, beste enpresa batzuk aukera honetaz baliatuko dira euskarari heltzeko.

Badakagu zer egina, bakoitzak berean eta elkarren artean.



GIDABAIMENA EUSKARAZ

Pasa den uztailetik aurrera, Bermeoko eta Mundakako herritarrek badute euskara erabiltzeko beste eremu bat, autorako karneta euskaraz prestatzeko aukera zabaldu baita hainbat eragileren elkarlanari esker. Dagoeneko gazte batzuek gidabaimena euskaraz prestatu dute baita azterketa gainditu ere, eta horren saria jasoko du batek abenduaren 3an, euskararen nazioarteko egunean, Kafe Antzokian egingo den zozketan.

BERMEOKO JAI OBERRIEN 2008ko LIBURUA



2008an jaiotako umeen familiek Euskara Sailak argitaratzen duen liburua jasoko dute azaroaren 29an Kafe Antzokian egingo den jaialdian.

Iaz Bermeon jaiotako 162 umeek eta euren familiek argazkia aterako dute elkarregaz ekitaldiaren amaieran eta aurretik, sorpresa politik ikusteko aukera izango dute, bertsoez eta antzerki zipritzindurik.



Gabon inguruan, Nestor Basterretxean zinea euskaraz zikloa antolatuko dute Euskara eta Kultura Sailak, Euskadiko Filmategiaren laguntzaz. Umeentzako 5 pelikula eta helduentzako estreinatuko berri diren beste pelikula 2 ikusgai izango dira, prezio merke baten truke.

Ziklo honeguz, merkatuan dagoen eskaintza Bermeora ekarrita, zinea euskaraz ikusteko zaletasuna sustatu gura dute antolatzaileek.



BERMEOKO TXIRRINDULARI TALDEA PEDRO BILBAO

1. Oso ondo dago egiten zauden biharra, profesional mailan ez da ikusten euskaraz berba egiten jende asko, baina beko mailetan umeak eta entrenadoreak segun ze herrikoak diren euskaraz egiten dugu berba gure taldeetan.
2. Nik uste dot ez dagoela lehengo moduan. Orain eskoletan umeek euskaraz ikasten dute; orain erraztasuna daukate euskeraz egiteko eta euren erraztasuna ikuskeran entrenatzaileak ere animaten dira euskeraz egiten egunero.
3. Batez ere gure ohitura ez galdu, orain kanpoko jendea da, orduan, honerik lagundu behar zaio eskolatan egindako biharra bultzatzeko gure taldeetan.



BERMEOKO FUTBOL TALDEA JULEN ABAROA

1. Zuzena
2. Nota bat ipiniz, aprobata justua eukiko zuen.
3. Euskeraz dakiteneak, euskeraz gehiagotan hitz-eginaraztea, eta ez dakitenei hitz-egiten laguntzea zeozertara.



TARASKA ATLETISMO TALDEA ANA URIARTE

1. Pentsatzen dot lan interesantea egin dozuela. Baina zeozer hobetu ahal izan ezker, uste dot ondo egongo zala jende gehiagok parte hartzea eta parte hartu dogun pertsonak aurretik informazio gehiago eukitzea, ideia gehiago emon ahal izateko.
2. Ba egunero edozein lekutan ikusi ahal dan egoera. Euskeraz egiten dauden pertsona batek ez dau pentsatzen kirola egiten dagoen edo ez, bere hizkuntzie leku guztietan erabiltzen dau. Arazue da askotan umeekaz dagoen monitoreak erdaldunak dirala, ta kontutan izan beharreko gauza bat dala uste dot.
3. Nik pentsatzen dot orain arte euskerie bizi dala antzinetik gure gurasuek euskeraz berba egin dabilako, alper idazten eta irakurtzen jakin ez. Orduan, uste dot euskeraren egoera hobetzeko, berba, berba ta berba egin behar dala bai kirol munduan eta baita beste bizitzako egoera danetan.